

IRITZIA

Espartzari eskertu beharko?



BIXENTE SERRANO IZKO

Espartzari eskertu beharko ote diogu PSN ez batzea Navarra Sumarekin nafar gobernu osatzeko? Horrela dirudi, emaitzen osteko Espartzaren lehen hitzak entzunda: "Ez dugu Chivite presidente eginen, ez gure botoekin, ez abstentzioarekin". Chivitek, berdintsu Espartzari buruz, bere jarraitzaile sutsuen oihuen aurrean ("Espartzarekin ez!"). Ba al dago fidatzerik Chiviteren hitzekin? Chivite ez da Sánchez eta ez du lortu lehen indarra izatea, bere berreskurapenaren despit. Alde handia hartu dio Navarra Sumak, eta ezinen du berez GB, Ahal Dugu eta I-Erekin bakarrik gehiengoa lortu, Chivitek nahi duen bezala EH Bildu baztertuz gero. Zaila du, Sánchezek baino zailagoa, gaien araberako akordio puntualak lortzea ezker-eskuinera jokatzeko. Hitzarmen sendoagoa lortu beharko luke bere balizko kide ezkertiar nafarrekin, EH Bilduren abstentzioaz gain. Chiviteren temak ez du ezer onik iragartzen.

Gerri fina du Chivitek, inbidiagarria ere, baina fina bezain zurruna, behintzat ezkeraldera gorputza makurtzeko. Ezin du ulertu Nafarroan ezkerak eta aurrerakoiek gai sozioekonomikoei soilik ez, gai kulturaleri ere (euskara barne) eutsi behar dietela giro demokratiko integraztaile bat sortu nahi badute. Chiviteren ikuspegi kulturala, batik bat Nafarroako hizkuntza aberastasunari dagokionez, gertuago dago UPNren diskurtsoetik bere balizko kideenetik baino. Aberastasun horren aldeko eskaerak identitate kontu gisa, eta ez kontu demokratiko gisa, ulertzen tematzea ez da batere integraztailea. Eta hain gogor ikuskera horri eustea nafarron ideien pluraltasunari uko egitea da. Chiviterengatik izanen balitz, gustura jasoko lituzke PSNk Navarra Sumaren botoak presidentetza lortze aldera.

Espero dezagun, bada, Espartzari eskertu behar izatea PSN-UPN-C's gobernu koalizioa, agerikoa edo itzalpekoa, ez gauzatzea. ●

ERREAKZIOAK



Uxue Barkos
GEROA BAI

Nahi zituzten emaitzak ez lortu arren, oraindik ere "badago aukera gobernu progresista bat gauzatzeko", azpimarratu DU Nafarroako lehendakariak. Horretarako, PSN, Podemos eta Izquierda Ezkerra hartu ditu kontuan, "EH-Bilduren abstentzioarekin". "Gizarteak bai esan dio Geroa Bai", eta "orain arte bezala lanean jarraitzeko konpromisoa" berretsi du.



María Chivite
PSN-PSOE

"Nafarren konfiantza berreskuratu dugu, berreskuratu dugu Nafarroako sozialistak izatearen harrotasuna". Erakunde guztietan ordezkaritza lortu dutela nabarmendu du PSNko buruak. "Hauteskundeetan zehar esandakoarekin koherente izango gara; gobernu aurrerakoi bat lideratu nahi dugu, ez dizkiogu gure botoak Esparza jaunari emango".



Javier Esparza
NAVARRA SUMA

"Nafarroak hitz egin du eta esan du ez duela nazionalismo eta populismo gehiagorik nahi. Orain, bi gobernu baino ez dira posible: Navarra Sumarekin edo nazionalistekin. María Chiviteri deituko diot, gobernu konstituzionalista osatzeko. Ez dugu Chivite presidente egingo, ez dizkiogu gure botoak emango eta ez gara abstentituko".

BLOKEEN EBOLUZIOA NAFARROAN

